

EUSKARA

IRAILA > URRIA 2020



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO



gizartea eta kultura
garaikidea

Bilbao

ZUZENKO ARTEAK / MUSIKA ESPERIMENTALA

URR. 7 (astz.)

Fernando Carvalho

Hotsetan. Azkuna Zentroko Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa

Fernando Carvalho artistak (Lisboa, 1976) urriaren 7an aurkeztuko du aurreko egunetan egingo duen tailerraren emaitza, hor, kontzertua teknikoki eta kontzeptualki prestatzen lan egingo baitu, Ableton Live-ko prozesuen bidez.

Bilbon bizi den konpositore eta inprobisatzaile portugesak musika elektronikoa ekoizten du duela bi hamarkada baino gehiagotik. Ia genero guztietan aritu da, dantza-musikatik hurbilen daudenekin hasi eta esperimentalenetaraino.

Musika-prestakuntzari dagokionez, ia erabat autodidakta izan da. Musika elektronikoarekiko izan duen interes handiaren ondorioz, musika hori ekoizteko aukera tekniko guztiak esperimendu ditu, eta etengabe jardun du baliabide digitalak, analogikoak eta akustikoak aztertzen bere lana garatzeko.

Hala, artista portugaldar honek pieza desberdinak eta estilo askekoak lantzen ditu, eta haien zehaztasuna eta intentsitatea bilatzen ditu, entzuleari ahalik eta modurik zuzenenean helarazteko. Artistak azaltzen duenez, «ez dut generoen iragazgaitasunean sinesten, eta gustatzen zait batetik bestera ibiltzea, askatasunez fusionatuz».

Fernando Carvalho. Irudia: Basques on Decks



CARVALHOK MUSIKA ELEKTRONIKOKO ETA GENERO EZ-KON-BENTZIONALETAKO EKITALDIETAN PARTE HARTU DU ETA CRYSTAL MINE ZIGILUAN ARGITARATUTAKO ICOSAEDRO IZENENKO BERE AZKEN LANA AURKEZTU DU.



Kontzertua

Urriak 7, asteazkena

19:00

Lantegia 1

12€ / 10€ Az Txartelarekin

Informazio gehiago:
azkunazentroa.eus



Ableton Live tailerra

Urriak 5 > 7

Astelehena > Asteazkena

Informazio gehiago: 62. orr.



 soundcloud.com/fernandocarvalho

 [@F.Carvalho.Music](https://www.facebook.com/F.Carvalho.Music)